

## ERREPORTAJE BATEN GIDOIA

**Izenburua:** egun batean euskaltegian.

**Iraupena:** 5'

**Esatari 2:** ESAT.1: emakumezkoa

ESAT.2: gizonetzkoa.

**Soinu-iturriak:**

MINIDISK-1: IKASLEEN INKESTAK (15")

MINIDISK-2: JANTOKIKO GRABAKETAK (gosaria – bazkaria)

ESKOLA BAT (ordubete)

CD1: BALDINTZAK ETA SUBJUNTIBOAK...

CD2: GUK EUSKARAZ (URKO)

CD3: ALAITZ ETA MAIDER: EMOZTAZU MUSUTXUE...

00':00" **KONTROLA: CD-2 LP (15') ETA LAGUNTZEN ESAT. 1 AMAITU ARTE**

00':15" **ESAT.1:** Guk euskaraz, zuk zergatik ez? Horixe bera galdetu zioten bere buruari Zornotzako barnetegian dauden ikasleek. Eta euskara ikasteari ekin zioten. Dagoeneko, seigarren mailan daude... Eta, asko kostata bada ere, esnatzen direnetik oheratu bitartean euskaraz ari dira, eta horrela emango dute urte erdia, euskaldun osoak izan lortu arte.

**ESAT.2:** Haiekin bizi gara egun batez barnetegian. Lehenengo pertsonan ezagutu nahi izan dugu esperientzia. Ez da erraza izango, baina bost minututan azaltzen saiatuko gara.

00':35" **KONTROLA: M.D.2 TRAC-1 (JANTOKIKO ZARATA) LP (5'') ETA LAGUNTZEN INKESTA OSOAN ZEHAR.**

00':40" **ESAT.1:** Goizeko zortzi t'erdia dira. Ikasle gehienak gosaltzen ari dira. Gutxi geratu dira ohean, eta horiek ere esnatuko dira laster. Eskolak bederatzit t'erdietan hasten dira, eta puntu-puntu egoten dira guztiak ikasgelan.

**ESAT.2.:** Irakasleak ez dauden arren, euskaraz ari dira guztiak txintxo-txintxo. Ez da erdararik aditzen.

00':45" **KONTROLA: M.D.1 TRAC-1 (MIKEL)**

*Ez pentsa, zuek zaudetelako...*

*... txipa aldatzea gogorra zaigu. (25'')*

01':05" **KONTROLA: M.D.1 TRAC-2 (MARIASUN)**

*Batzuetan ez zara konturatzen ze hizkuntzaz ari zaren...*

*...Amak deitu zidanean, oso arraro egin zitzaidan erdaraz egitea. (20'')*

01':25" **ESAT.1:** Serio hartzen dute ikasleek euskaraz hitz egiteko beharra. Frogatu dugunez, tranpak ez egiten saiatzen dira, baina batzuetan ateratzen zaie esaldiren bat gaztelaniaz.

**ESAT.2:** Txintxo-txintxo gosaldutute; eta, segituan, eskoletara. Hiru taldetan banatzen dira orain. Batzuek gramatika lantzen dute lehenengo orduan; beste batzuek, berriz, mintzamina, ahozko adierazpena, eta ulermena; eta hirugarren batzuek, aditzak.

01':35" **KONTROLA: CD-1 (ESTRIBILLOA) LP (20'') ETA AMAITU**

01':55" **ESAT.1:** Talde guztiak hiru ataletatik pasatzen dira, baina tartean badaude kafea hartzeko edo zigarrotxo bat erretzeko momentu batzuk. Horietan ere mintzamina lantzen dutela dio irakasleak. Eta hori da, hain zuzen ere, barnetegiak eskaintzen duen berezitasuna, euskaltegi irekien aldean.

02':02" **KONTROLA: M.D.1 TRAC-3 (IRAKASLEA)**

*Horixe da, hain zuzen ere, hemen eskaintzen duguna, euskaraz bizitzeko...*

*... Euskaltegitik atera eta etxera edo lanera doaz, eta erdaraz egiten dute. (23'')*

02':25" **KONTROLA: M.D.2 TRAC-1 (JANTOKIKO ZARATA) LP (5'') ETA AMAITU**

02':30" **ESAT.2:** Eskolak amaitu eta jatera doaz. Gaur porrusalda, bakailoa eta natillak daude. Ez da menu makala, ezta?

**ESAT.1:** Goxoa benetan! Hori esan digute ikasleek, oso ondo jaten dutela aitortzen digute, eta horrexegatik bakarrik animatzen dute jendea hona etortzera.

**02':35" KONTROLA: CD-1 (ESTRIBILLOA) LP (20') ETA AMAITU**

02':55" **ESAT.2:** Arratsaldean tailerrak daude. Siesta laburtzua egin eta gero, tailer ezberdinetan parte hartzen dute ikasleek: dantza, esku-lanak, literatura... Bakoitzak aukeratu ahal du gustuko duena.

**ESAT.1.:** Sei t'erdietan amaitzen dira tailerrak. Hortik aurrera norberak planifika dezake atsedenaldia nahi duen moduan.

**03':03" KONTROLA: M.D.1 TRAC-4 (MAITE)**

*Hortik eta afaldu arte, normalean ingurutik paseatzera joaten gara...*

*... talde gehienetan euskaraz egiten da. (22")*

**03':25" KONTROLA: M.D.1 TRAC-5 (ENEKO)**

*Lagunak egiten dira, eta batzuetan zaila da sentitzen duzuna euskaraz esatea...*

*... Nik lagunei deitzen diet gaztelaniaz egin ahal izateko. Baina ez esan Ixabeli. (24")*

03':49" **ESAT.2:** Nik banuen zalantza bat: ligatzen da barnetegietan?.

**03':50" KONTROLA: CD-3 (Emoiztazu...) LP (10') ETA LAGUNTZEN ERANTZUNAK DAUDEN BITARTEAN**

**04':00" KONTROLA: M.D.1 TRAC-6 (HARITZ)**

*Ez nekien euskaraz hainbeste ligatzen zenik...*

*... eta laguntzeko eskatzen diozu neska bati.. (21")*

**04':21" KONTROLA: M.D.1 TRAC-7 (ZURINE)**

*Ez dakit nik...,*

*...batzuetan zer esan ez dakizu-eta. (16")*

04':37" **ESAT.1:** Afaldu eta gero, normalean ez dira ateratzen; hurrengo egunean oso goiz esnatu behar dira eta. Batzuek telebista ikusten dute, baina gehienek hurrengo egunerako dituzten etxeko lanak amaitzen dute, edo errepasso bat ematen diote ikasitakoari, edo irakurtzen dute..., oheratu baino lehen.

**ESAT.2.:** Eta ohean?

**ESAT.1.:** Hori ez digute kontatu. Baina, badakizu, hizkuntzak ere ikasten dira...

**ESAT.2.:** Hor utziko dugu, bada ez bada.

**ESAT.1.:** Bihar berriz arituko dira egun osoan euskaraz... Eta horrela ostiralera bitartean. Barikuetan etxera joan ohi dira. Gehienak erdaraz arituko dira asteburuan zehar, baina saiatzen dira euskaraz jarraitzen... Baina zaila da, lagunuen arteko ohiturak aldatzea eskatzen baitu askotan...

**04':50" KONTROLA: CD-2 LP (10") ETA AMAITU**